



EBAZPENA, 2025eko urtarrilaren 30ekoa, Arrantza eta Akuikulturako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko 2024-2025 denboraldirako angularen arrantza profesionalerako kanpainako hirugarren aldia aldatzekoa.

Kontseiluaren 2024ko urtarrilaren 10eko 2024/257 (EB) Erregelamenduak 2024, 2025 eta 2026rako Batasuneko uretan aplika daitezkeen arrain populazio jakin batzuen arrantza aukerak finkatzen ditu, eta, Batasuneko arrantza-ontzien kasuan, Batasunekoak ez diren ur jakin batzuetakoak, eta 2023/194 (EB) Erregelamendua aldatzen du. Erregelamendu horrek 13.4 artikuluan xedatzen du angularen arrantza jarduerak baimendu ahal izango direla gehienez hogeita hamar eguneko aldi jarraitu edo ez jarraituan.

Euskal Autonomia Erkidegoan angularen arrantza profesionala arautu eta angula-arrantzale profesionalen erregistroa sortu zuen ekainaren 18ko 77/2024 Dekretuak 11. artikuluan xedatzen du angularen arrantza-denboraldia bera, denboraldi horren aldaketak edo etendurak arlo horretako Zuzendaritza eskudunaren ebazpen baten bidez ezarriko direla, Kantauri itsasoko ertzeko beste autonomia-erkidego batzuekin koordinatuta, beharrezko euskarri tekniko eta zientifikoarekin, eta inola ere ez du gaindituko Batasuneko araudian aurreikusitakoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2024-2025 denboraldirako angularen arrantza profesionalerako lizentzia-eskabideak aurkezteko epea ezarri, eta arrantzaren zenbait arlo arautzen dituen Arrantza eta Akuikulturako zuzendariaren 2024ko irailaren 24ko Ebazpenak 6. artikuluan xedatzen du 2024-2025eko kanpainako angularen arrantza-denboraldiak aldi hauek izango dituela: 2024ko azaroaren 29tik abenduaren 5era (2024ko azaroaren 27ko Ebazpen bidez aldatu zen, 2024ko abenduaren 12tik 18rako aldia ezarri); 2024ko abenduaren 26tik 2025eko urtarrilaren 3ra; 2025eko urtarrilaren 26tik otsailaren 1era; eta 2025eko otsailaren 24tik martxoaren 2ra. Halaber, ezartzen da arrantza arloko eskumena duen zuzendaritzako titularren ebazpen baten bidez, eta baldintza meteorologikoen arabera, 48 ordu lehenago aldatu ahal izango direla kanpainaren datak.

Angularen arrantza profesionalaren kanpainaren hirugarren aldia 2025eko urtarrilaren 26tik otsailaren 1era bitartekoa izango dela ezarrita badago ere, egungo eguraldia aldekoa denez eta otsailaren 3ra arte iraungo duela aurreikusten denez, egokitzen jotzen da arrantza aldia otsailaren 3ra arte luzatzea. Hortaz, laugarren arrantza aldia murriztu beharko da.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 11ko 438/2024 Dekretuan ezarritakoaren arabera, Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzari arrantzarekin lotutako egitekoak dagozkie.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra. Euskal Autonomia Erkidegoko 2024-2025 denboraldirako angularen arrantza profesionalerako kanpainako hirugarren aldia aldatzea, eta horrela, ezarrita zegoen aldiaren ordeztu:

2025eko urtarrilaren 26tik otsailaren 1era (7 egun).

Aldi hau hartuko du:

2025eko urtarrilaren 26tik otsailaren 3ra (9 egun).

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA. Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke arrantza arloko eskumena duen sailburuordetzako titularrari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA. Ebazpen honek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 30a.

Arrantza eta Akuikulturako zuzendaria,
IXONE SOROA GUENAGA.